



Ebazpena, Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariarena, zeinaren bidez herritarrei aldez aurreko kontsulta egiten baitzaie Etxebizitza Okupatzeko Eskubide Subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretua aldatzen duen xedapen orokor bat egiteari buruzko iritzia eman dezaten.

Resolución del Director de Planificación y Procesos Operativos por la que se somete a consulta previa a la ciudadanía la elaboración de una disposición de carácter general que modifique el Decreto 147/2023, de 10 de octubre, del derecho subjetivo de acceso a la ocupación de una vivienda, a fin de recabar su opinión.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren ustez, beharrezkoa da xedapen orokor bat egitea, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretua alda dadin.

El Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes considera oportuna la elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de modificar el Decreto 147/2023, de 10 de octubre, del derecho subjetivo de acceso a la ocupación de una vivienda.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua xedatzen duenez, xedapen orokor bat idatzi baino lehen, gizarteak duen iritzia bilduko du kontsulta publikoaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-oholean iragarki bat jarrita.

El artículo 11 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, dispone que, con carácter previo a la redacción de una disposición de carácter general, se recabará en consulta pública, la opinión en la sociedad de la ciudadanía, a través del tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Ebazpen honen bidez, ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutako aldez aurretiko kontsultaren izapidea betetzen da, etorkizuneko arauak eragingo dien herritarrek euren iritzia emateko aukera izan dezaten.

Mediante la presente resolución, se da cumplimiento al citado trámite de consulta previa previsto en la Ley 6/2022, de 30 de junio, a los efectos de que, la ciudadanía afectada por la futura norma, tengan la posibilidad de emitir su opinión.

Horregatik guztiagatik, HERRITARREI GONBIDAPENA EGITEN ZAIE idaztekoa den xedapen orokorrari buruz ebazpen honetan ematen den informazioaz ZER IRITZI DUTEN AZAL DEZATEN.

Por todo ello, se INVITA EXPRESAMENTE A LA CIUDADANÍA A PRONUNCIARSE acerca de la información que se contiene en la presente resolución sobre la futura disposición de carácter general cuya elaboración se va a iniciar.

Etorkizuneko aruari buruzko informazioa eranskinean dago, eta honako alderdi hauei jasotzen ditu:

La información sobre la futura norma se contiene en el Anexo y versa sobre los siguientes aspectos:





- a) araua onestearen premia eta egokitasuna,
- b) arauaren xedeak,
- c) konpondu nahi diren arazoak,
- d) izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

- a) La necesidad y oportunidad de su aprobación
- b) Los objetivos de la norma.
- c) Los problemas que se pretenden solucionar
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

15 egun balioduneko epea ematen da, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarri eta hurrengo egunetik aurrera, herritarrek egoki iritzitako iradokizunak edo oharak aurkez ditzaten.

Se establece un plazo de 15 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la inclusión en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de la presente resolución, para que la ciudadanía presente todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.

Kontsulta-izapide hau arau-proiektua idatzi baino lehenago egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak araututako "prestaketa" fasearen barruan (11. artikulua).

El presente trámite de consulta se efectúa, con carácter previo a la elaboración del proyecto normativo, dentro de la fase de "Preparación" de una disposición de carácter general, prevista en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (artículo 11)

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarilaren 19ko 11/2021 Dekretuak esleitutako eskumenei jarraikiz, honako hau

En virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 11/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

Lehenengoa.- Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretua aldatzea xede duen xedapen orokor baten proiektua egin aurretik, herritarrei aldez aurreko kontsultaren izapidea egitea.

Primero.- Someter a trámite de consulta previa a la ciudadanía, con carácter previo a su elaboración, el proyecto de una disposición de carácter general que tenga por objeto la modificación del Decreto 147/2023, de 10 de octubre, del derecho subjetivo de acceso a la ocupación de una vivienda

Bigarrena.- Herritarrek, hala nahi badute, ebazpen honen eranskinean azaltzen diren gaiei buruz beren

Segundo.- La ciudadanía que así lo considere puede hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos



iritzia azaldu ahal izango dute, hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

plantados en el Anexo a esta resolución en el plazo de quince días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el del tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Vitoria-Gasteiz,

En Vitoria-Gasteiz,

MARIO YOLDI DOMÍNGUEZ

Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu
Eragileen zuzendaria

Director de Planificación y
Procesos Operativos de Vivienda



ERANSKINA

Araua onestearen premia eta egokitasuna.

2023ko urriaren 25ean, EHAAan argitaratu zen 147/2023 Dekretua, urriaren 10ekoa, etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa. Eskubide subjektiboa alokairu-erregimeneko etxebizitza bat edo zuzkidura-bizitoki bat esleituz betetzen da, eta, subsidiarioki, etxebizitzako prestazio ekonomiko bat emanaz, etxebizitza edo zuzkidura-bizitoki bat esleitzea ezinezkoa denean.

Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoak Etxebizitzarako Prestazio Osagarria ordeztuko du, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen bigarren xedapen iragankorrean jasotzen den bezala.

Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretuaren zioen azalpenak haren printzipio gidari bereizgarria honako hau izan dela dio: «Arau horren zioen azalpenak printzipio gidari bereizgarri gisa ondorengoa hartzen du: «etxebizitzarako eskubide subjektiboaren erregelamendua garatzeari dagokionez, etxebizitza duina izateko eskubide subjektiboaren onuradunei eska dakizkiekeen errentari buruzko baldintzak ez zirela inola ere murriztaileagoak izango Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean diru-sarrerak bermatzeko errenta lortzeko adierazitakoak baino [erreferentzia hori ulertu behar da Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeari egiten zaiola, zeinak aurrekoa indargabetu eta ordeztu baitzuen]. Helburua beti izan da, eta hala izaten jarraitzen du, gizarte-babeseko sistemara jo ahal duen inor ez dadila kaltetua izan bere eskubideetan prestazio-sistematik etxebizitza-sistemara aldatzeagatik, eta, sensu contrario, etxebizitza-sistematik datozen eta eskubide subjektiboa aitortua duten kolektiboek harmonikoki gehitzen zitzaizkiela DSBEari lotutako gizarte-sistemaren alokairu-

ANEXO

La necesidad y oportunidad de su aprobación

Con fecha 25 de octubre de 2023 se publicó en el BOPV el Decreto 147/2023, de 10 de octubre, del derecho subjetivo de acceso a la ocupación de una vivienda. La satisfacción del derecho subjetivo se realiza a través de la adjudicación de una vivienda en régimen de alquiler o de un alojamiento dotacional y, con carácter subsidiario, con la concesión de una prestación económica de vivienda cuando no sea posible la adjudicación de una vivienda o alojamiento dotacional.

La prestación económica de vivienda ha sustituido a la Prestación Complementaria de Vivienda, tal y como se recoge en la Disposición Transitoria Segunda de la Ley 14/2022, 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión.

La exposición de motivos del Decreto 147/2023, de 10 de octubre, del derecho subjetivo de acceso a la ocupación de una vivienda señala su principio rector diferencial ha sido que «los requisitos de ingresos exigibles a los beneficiarios del derecho subjetivo a una vivienda digna no pudieran ser más restrictivos que los señalados en la Ley 18/2008, de 23 de diciembre, de Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social [referencia que hoy debe entenderse realizada a la Ley 14/2022, 22 de diciembre, del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión, que la derogó y sustituyó] para la obtención de la renta de garantía de ingresos. El propósito ha sido siempre, y sigue siendo, que ninguna persona con acceso al sistema de protección social resultara perjudicada en sus derechos por el cambio al sistema de vivienda y, sensu contrario, que a los colectivos con derecho subjetivo reconocido provenientes del sistema de vivienda, se añadieran sin estridencias los colectivos que, con diferentes requisitos socioeconómicos, accedían a las prestaciones al alquiler del sistema social vinculado a la RGI. Se trata, por tanto, de sumar coordinada y armónicamente al derecho subjetivo a la vivienda a



prestazioak baldintza sozioekonomiko desberdinetan eskuratzen zituzten kolektiboak. Beraz, etxebizitzarako eskubide subjektiboari kolektibo eta onuradun berriak gehitzea da helburua, modu koordinatuan eta harmonikoan.»

nuevos colectivos y personas beneficiarias.»

Kontuan hartuta arauaren egungo idazkerak aukera ematen duela aipatu printzipio gidaria hutsaltzen duten interpretazioak egiteko, beharrezkotzat jotzen da idazkera hori birformulatzea eta hobetzea, nahi ez diren ondorio horiek saihesteko.

Advirtiéndose que la redacción actual de la norma permite interpretaciones que desvirtúan el citado principio rector, se ve necesaria la reformulación y mejora de la citada redacción, a fin de evitar los mencionados efectos indeseados.

Arauaren xedeak.

Los objetivos de la norma.

Arauaren helburua da bermatzea etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboaren inguruan sor daitezkeen prestazio ekonomikoen eremuak ez duela murrizketarik izango Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen erregelamendu bidezko garapenean, eta ez dela baliokidetasun faltarik sortuko etxebizitzarako prestazio osagarri iraungiarekin..

El objetivo de la norma es garantizar que el ámbito de las prestaciones económicas que pueden generarse en torno al derecho subjetivo a la ocupación de una vivienda no quede mermado por el desarrollo reglamentario de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de vivienda ni se generen inequivalencias con respecto a la extinta prestación complementaria de vivienda.

Konpondu nahi diren arazoak

Los problemas que se pretenden solucionar

Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretuaren egungo idazketaren interpretazio literalistegiak zioen azalpenak aldarrikatzen duen etxebizitzako prestazio ekonomikoaren unibertsaltasunaren helburuak lortzeko arriskua konpondu nahi da, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak ezarritako mugen barruan. Arrisku hori saihestu nahi da, idazketa hori hobetuz eta argituz..

Se pretende dar solución al riesgo de que una interpretación excesivamente literalista de la redacción actual del Decreto 147/2023, de 10 de octubre, del derecho subjetivo de acceso a la ocupación de una vivienda malogre los objetivos de universalidad de la prestación económica de vivienda que proclama su exposición de motivos, dentro de los límites establecidos por la Ley 3/2015, de 18 de junio, de vivienda. Se pretende evitar ese riesgo mediante la mejora y clarificación de la citada redacción.

Bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Ez dago bestelako aukerarik, ez erregulatzailearik ez ez-erregulatzailearik.

No hay otras alternativas, ni regulatorias ni no regulatorias.